



LEAGUE OF LEGENDS TXAPELKETA

1. PARTE-HARTZEARI BURUZ

1.1. Mangamore 2020ko League of Legends txapelketa **online egingo da oso-osorik**.

1.2. Txapelketak **formatu** hau izango du:

- Finalerako 2 sailkapen-saio izango dira, urriaren 3an eta 4an, 16: 00etan. Sailkapen bakoitzeko irabazleak finalerako plaza bat lortuko du eta sari handia irabazteko aukera izango du. Lehenengo sailkatzean sailkatuz gero, ezingo da bigarren sailkapenean parte hartu.
- Finala urriaren 11n egingo da, <https://www.twitch.tv/mangamore> helbidean, 11:00etan.
- League of Legends kontu bat eduki behar da, 30 mailakoa eta gutxienez 20 txapeldunekoa, EUWen erregistratua.
- Parte hartzeko gutxienerako adina 12 urtekoa da.
- Ez da sailkapen-plazen mugarik egongo.

2. INSKRIPZIOARI BURUZ

2.1. Izen-ematea online egingo da <https://challonge.com/es/users/mangamore/tournaments> helbidean, oinarri hauek argitaratzen diren unetik torneoaren egunera arte, egun hori barne.

2.2. Izena emateko formularioan datu hauek emango dira:

- Taldearen izena
- Kide guztien izen-abizenak eta adina
- Kapitainaren helbide elektronikoa
- Kapitainaren telefonoa (antolakuntza-premiarik izanez gero harremanetan jartzeko)

3. TXAPELKETARI BURUZ

- 3.1. Saillapen bakoitza kanporaketa-formatuko partida batera izango da, aukera bikoitzarekin; beraz, lehen partidari gaitzen bada, beste aukera bat izango da sailkatu ahal izateko.
- 3.2. Saillapen bakoitza hasi baino hamabost minutu lehenago, 15:45ean, chalongean check-ina irekiko da eta parte hartzea baieztatu beharko da; parte hartu ezean, taldea txapelketatik deskalifikatuko da.
- 3.3. Taldeetako kapitainek discordera (<https://discord.com/invite/6yXfbhk>) sartu beharko dute zalantzak argitzeko eta partidaren emaitzak iragartzeko. Gainera, kanal hau txanda bakoitzaren hasieraren berri emateko erabiliko da.
- 3.4. Saillapen bakoitzeko talde txapeldunek final handian parte hartuko dute urriaren 11n, igandean, 11:00etan, 3 partidako onenari (2 partida irabazten dituen taldea izango da txapelduna).

4. SARIEI BURUZ

- 4.1. Sari hauek emango dira:

Txapelduna: 500€

Txapeldunordea: 200€

- 4.2. Txapelketa amaitutakoan, antolatzaileak harremanetan jarriko dira posta elektronikoz, dagozkien sariak jasotzeko.

Inskripzioan emandako datuen benetakotasuna egiaztatzeko, saritutako pertsonen NANaren, txartelaren edo dokumentuaren irudi bat eskatuko zaie (adibidez, familia-liburua), jaiotze-data jasotzen duen legezko balioarekin. Horrela, taldeko kide guztien dokumentua bidali beharko da videojuegos@mangamore.net-era.

5. ANTOLAMENDUARI BURUZ

- 5.1. Oinarri hauetan araututa egon ez arren, lehiaketaren arrakastarik handiena lortzen laguntzen duen edozein ekimen hartzeko eskubidea izango dute antolakuntzak eta epaimahaiak.
- 5.2. Erakundeak partaidetza-testuinguru errespetuzkoa eta dibertigarria sustatu nahi du, bideojokoekiko grinaz gozatzeko.
- 5.3. Lehiaketan inskripzioa egiteko emandako datu pertsonalak konfidentzialtasunez tratatuko dira, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera. Datuak lehiaketa hau egiteko baino ez dira erabiliko, eta ez zaizkie hirugarrenei salduko edo lagako.
- 5.4. **Lehiaketan parte hartzeak oinarriak erabat onartzea dakar.**



HARREMANETARAKO BIDEA:

Zalantzarik izanez gero, mezu elektronikoz bat bidali dezakezu videojuegos@mangamore.net helbidera.